



ASTEARTEA

2021/06/22
9. urtea, 1.440. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Herriko ikurraren bueltan, bidea

Piparraren Bidea prestatu du Ibarako Udalak; hiru kilometroko ibilbidea seinalezatu dute // 4



IMANOL GARCIALANDA

«Ziur naiz partida garrantzitsu gehiago etorriko direla»

JOKIN ALTUNA BURUZ BURUKO TXAPELDUNA

Buruz buruko bigarren txapela eskuratuta pozik dago pilotari amezketarra, eta asko eskertu du Amezketan egindako ongietorria; bere buruarekin hobeto sentitzen dela, «lasaiago eta konfiantza handiagoarekin» esan du // 7

Eserialdia eta mahai ingurua, Zelaraini babesa emateko

13/13 epaiketan auzipetutako billabonatarriari elkartasuna adierazteko ekitaldietan parte hartzera deitu dituzte herritarrak // 3

Emari Coworking gunea ekintzaileak hartzeko prest dago

Tolosako Oriaburu eraikinean dagoen Emari Coworking gunean zazpi ekintzailerentzat dago lekua; interesatuek izena eman dezakete // 5

Teknologia aurreratuena garatzen
dugu gure bezeroak lehiakorragoak
izan daitezen

 **Zitu**
zure softwarea

943 215 270 / zitu.net / info@zitu.net

IRABAZLEA

• Kepa Ormaetxea Etxeberria (Tolosa)

Ataria jarriko da harremanetan.



Sexu askapenaren egunaren bueltakoak antolatu dituzte

ANOETA // Anoetako Emakume-ek eta Matraka talde feministak Anoetako Udalarekin batera antolatu ditu ekimenak. Gaur *Trans bizipenak: gai pertsonala edo soziala?* hitzaldia eskainiko dute gaztetxean, 19:00etan. Ekainaren 28an, berriz, 18:00etatik aurrera eta Anoetako plazan, *Herria koloreztatu* ekimena egingo dute.

Ur hoditeria berritzeko lanak egingo dituzte

AMASA-VILLABONA // Txermin, Altzin, Erniobea eta Kale Berriko ur hoditeria berritzeko lanak egingo dituzte. Atzotik abuztuaren 1era Txermin auzotik Arratzainera igotzeko N1 errepidearen azpialdeko tunelaren inguruan ariko dira. Eta abuztuaren 2tik azaroaren 29ra Altzin auzoa eta Kale Berria 15 inguruko zonaldean ariko dira.

Pertsona bat hil da Ikaztegieta, trenak harrapatuta

IKAZTEGIETA // Pertsona bat hil zen atzo, Ikaztegieta parean, trenak harrapatuta. Ertzaintzak esan du gertakaria 10:30ak aldera izan zela, eta gertatutakoa ikertzen ari dela. Istripuaren ondorioz, goizean zehar tren zerbitzua eten egin behar izan zuten.

Pixkana ari dira COVID-19ari aurre egiteko neurriak arintzen

Ekainaren 26tik kanpoaldean ez da maskararik eraman beharko eta ostalaritza eta jarduera kulturalen ordutegia 02:00ak arte luzatu dute

Erredakzioa Tolosa

COVID-19an positibo direnen kopuruak behera egin du azken asteetan eta hori dela eta pandemiari aurre egiteko neurriak arintzen ari dira. Espainiako Gobernuak jakinarazi du ekainaren 26tik aurrera eta kanpoaldean, ez dela maskararik eraman beharko, eta Eusko Jaurlaritzak bere aldetik, hainbat neurri malgutu ditu.

Horiek horrela, ostalaritza eta jarduera kulturalen ordutegia 02:00ak arte luzatu du Eusko Jaurlaritzak. Tabernetan sei laguneko taldeetan egon ahal da larunbatetik, bai kanpoan, baita barruan ere. Barruko edukiera, gainera, %50ekoa da, nahiz eta oraindik debekatuta dagoen zutik kontsumitzea. Horrekin batera, txokoei eta elkarte gastronomikoei irekitzeko baimena eman diete, ostalaritzarako ezarri dituzten irizpide berdinekin. Diskotekak itxita mantenduko dira.

Kirol jarduerari dagokionez, instalazioetan hamar laguneko taldeetan egotea baimendu du Jaurlaritzak, eta aldageletan %50eko edukiera berreskuratu da. Eskola kirola ere ahalbidetu



Ostalaritzako ordutegia zabaldu dute, eta larunbatetik 02:00ak arte egon daiteke zabalik. J.A.D.

tuko da, eta beraz, udako txapelketak egin ahaliko dira. Kirol edo kultur ekitaldietan ikusleak sartzea ere posible izango da, baina beti ere edukiera mugatuarekin: gehienez 600 pertsona egon ahal izango dira barruan eta 800 kanpoan. 1.600 eta 5.000 pertsona arteko edukiera duten esparruetan, berriz, gehiengo 800era zabalitzen da barnealdean eta 1.200 kanpoan. 5.000 pertsonatik gorako edukiera duten instala-

zioetan, gehienezko edukiera %30ekoa izango da. Datozen 15-20 egunetan berriro aztertuko dituzte irizpideak, are gehiago malgutzeko edo osasun larrialdia bertan behera uzteko.

Positiboek dagokionez, ostiralek igandera lau positibo egon dira Tolosaldean; hiru Tolosan eta bakarra Ibarra. 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Tolosaldeko herrietan, Amasa-Villabona (50) kolore berdean dago

eta Tolosa (170) horian. Osasun eremuei dagokionez, Villabonakoa (50) kolore berdean dago, eta Alegiakoa (74), Ibarrakoa (191) eta Tolosakoa (163) horian daude. Tolosaldeko ESI ere kolore horian dago. Ospitaleen egoerari dagokionez, COVIDaren ondorioz 16 pertsona ospitaleratu zituzten herenegun, denera, 69 pertsona daude ospitaleetan, eta COVIDa duten 50 pertsona ZIU daude.



GAZTE ASTEBURUA IZAN DUTE

Ibarrako Gazte Asanbladak antolatuta Gazte Asteburua izan dute, Ibarra. Ostiralean hasi zituzten ekitaldiak eta hasiera batean igandera arte luzatu behar bazituzten ere, azkenean larunbatean amaitu zituzten ezohiko festak. Larunbat goizean 3x3 futbol partidak izan zituzten (irudian). E.M.E.



MEREZITAKO OMENALDIA

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak herriz herri ari da odol emaeleak omentzen. Berastegiko kasuan, pasa den ostiralean egin zuten ekitaldia. Hiru herritar izan ziren oroigarriak jaso zituztenak: Ane Ramirok eta Marikruz Arnaldek 40 aldiz emateagatik, eta Xabier Iturriozek 25 aldiz eman duelako. I.S.



Zelaraini elkartasuna adierazteko Villabonan bertan egindako agerraldia. J.M.

Julen Zelaraini babesa emateko ekitaldiak antolatu dituzte

13/13 epaiketari auzipetutako billabonatarrari elkartasuna adierazteko eserialdia egingo dute ekainaren 26an; uztailaren 7an auziari buruz aritzeko mahai ingurua egingo dute

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako eta eskualdeko herritar ugariak Julen Zelaraini billabonatarrari elkartasuna adierazi diote. Beste zazpi herritarrekin batera Espainiako Auzitegi Nazionalean uztailaren 12tik aurrera epaituko dute eta fiskaltzak zortzi kideentzat 77 urteko espetxe zigorra eskatu du. Agerraldi jendetsu batean auzia salatu eta Zelaraini elkartasuna adierazteko deia luzatu dute hainbat herritarrek. Ekainaren 26an jarri dute hitzordua, 12:00etan. Malakar plazan elkartu eta Kale Berrian zehar burutuko dute eserialdia.

MAHAI INGURUA

Auziaz hitz egiteko mahai inguru bat ere antolatu dute Amasa-Villabonan uztailaren 7an, eta uztailaren 10ean manifestazioak egingo dituzte Donostian eta Bilbon, 13/13 epaiketari ez. Irtenbi-

dera lelopean. Bi mobilizazioak 12:00etan hasiko dira. Auzia salatu eta Zelaraini elkartasuna adierazteko Villabonan bilduren herritarrek adierazi dute duela 11 urte polizi operazioa oso testuinguru politiko zehatzean gertatu zela: «Ezker abertzalea bete-betean zebilen konfrontazio armaturik gabeko agertoki politiko berria eraikitze oinarriak gorpuzten, beti ere indarkeria adierazpen guztiak Euskal Herrian desagertzea bilatzen».

13/13 epaiketaren oinarrian dagoen polizi operazioa asmo horiek «zapuzteko» saiakera gisa ulertzen dute Villabonan bildutako herritarrek. «Estatu espainoleko estolda aparatuek noraino iristeko prest ziren erakutsi zuten: babes legalik gabeko CNIaren inplikazioarekin, frogeng manipulazioarekin, oinarritzko eskubideen urraketekin, tratatu txar eta torturekin». 11 urte geroago, estrategia horren guz-

tiaren ardatza izaten segitzen du herritarren ustez Auzitegi Nazionalak, «iraganari kateatutako salbuespenezko tresnak».

Uztailan abiatuko den epaiketa «denboraz eta lekuz kanpo» datorrela uste dute Zelaraini babesa eman dioten gizon eta emakumeek. «Presoak atzerapen gehiagorik gabe etxeratzeko garaia da; gatazkaren ondorioak, guztiak, argitu eta orbainak ondo ixten saiatzeko denbora da; auzi politikoari oinarritik heltzeko unea da; euskal gizarteari, askatasunari, demokraziari aukera berriak irekitzeko etapan gaude, euskal jendarteak behar duen elkarbizitza demokratikoaren esparrura iritsi gaituzten».

13/13 epaiketa salatzeke Amasa-Villabonan eta nazio mailan antolatu diren mobilizazioetan parte hartzeri animatu dituzte herritar guztiak: «IrtenBidera. Demokrazia, bakea, etorkizuna».

Kiroldegian espazio bat egokituko dute sukalde bat egiteko

Tokiko elikadura osasuntsua suspertzea du helburu Anoetako Udalak; espazioaren kudeaketa lehiaketa publiko bidez egingo da

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Udalarentzat azken urteetako lan ildoak izan dira ekonomia zirkularra eta ekonomia ekologikoa. 2018. urtean *Bertakoa Bertatik* kanpaina hasi zuen tokiko elikadura katea indartzea helburu: elikagaien ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa.

Hausnarketa baten ondorioz sortu zen proiektua, ikusi baitzen azken urteetako gizartearen bilakaerak itzalean eta gainbeheran jarri dituela tokiko elikagaien ekoizpena eta, baita herritarren merkataritza txikia ere. Hori dela eta, konpromisoa hartu eta dinamika jarri ziren martxan, helburu izanik bertako ekonomia bultzatzea, paisaiari eustea, ingurumena zaintzea, herritarren osasuna hobetzea, euskal kultura zein nortasuna indartzea eta produktu bakoitzaren atzean dauden pertsonen duintasuna bermatzea.

Tokikotasunetik ekonomia

zirkularraren eta ekonomia ekologikoaren oinarriak bultzatzea eta helburu horiek lortzeko praktikak indartzea da udalaren asmoa eta tokiko elikadura osasuntsuaren aldeko apustua egingo du orain. Anoetako Udalak erabaki du espazio berri bat sortzea zeinak, batetik, helburu izango duen herriko ekonomia dibertsifikatzea eta lan aukera berriak sortzea; eta, bestetik, egokitu egingo den herritarren kontsumo ohituretara.

LEHIAKETA BIDEZ

Hori lortzeko Abraham Olano Kiroldegian espazio bat egokituko da sukalde moduan, eta bertan elikagaiak prestatu, aurkeztu eta merkaturatu egingo dituzte. Espazio horren kudeaketa lehiaketa publiko bidez egingo da.

Esleipen prozesua bukatzen denean, lehiaketa irabazi duenarekin adostuko dira obraren nondik norakoak. Gaur da proiektuak aurkezteko azken eguna.

Trafikoaren arazoaz hitz egiteko herri batzarra, gaur

Erredakzioa Irura

Irurako Udalak hilabeteak daromatza herria zeharkatzen duen GI-3650 errepideak eragiten dituen arazoak aztertzeke diagnostiko bat osatzen, eta horrekin batera, irtenbideak izan daitezkeen proposamenak aztertzen. Azterlan horrek bi zati izango ditu: bata teknikoa, Gea21 enpresak garatuko duena; eta bestea, berriz, herritarren parte hartzearekin gauzatuko dena.

Guraso eta adineko pertsonen galdetegiak zabaldu ziren udalak urte hasieran eta orain batzar ireki batekin irurarren iritzia eta ekarpenak jaso nahi ditu. «Arazo kolektiboek erantzun ko-

lektiboak eskatzen dituzte, horregatik ezinbestekoa da herritarren parte hartzea», esan dute udaletik. Horrekin lotuta herri batzar irekia egingo dute gaur herri eskolan 18:00etatik aurrera eta telematikoki parte hartzeko aukera ere izango da *Irura.eus* webguneko estekan sartuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako azken azterketaren arabera, egunero GI-3650 errepidetik 6.000 ibilgailu pasatzen dira batez beste. Kopuru horren portzentaje esanguratsu bat trafikoa astunari dagokio eta astelehenetik ostiralera bitarteko epea aztertuz gero, egunean 6.600 ibilgailu izatera ere iristen dela dio azterketak.

Piperra erdigunean jartzeko, Piparraren Bidea aurkeztu dute

Ia hiru kilometroko ibilbide bat prestatu du Ibarako Udalak, piperraren inguruan; bost panel jarri dituzte ibilbidean zehar, eta bide amaieran, atsedenerako gune bat jarri dute

Irati Saizar Artola Ibarra

Ibarako Udala piperra erdigunean jartzeko lanketa bat egiten ari da azken boladan, eta pasa den ostiralean aurkeztu zuten lanketa horretako emaitza bat: Piparraren Bidea. Igor Zapirain alkateak esan duenez «piperra Ibarraren produktua da, gure nortasunaren eta kulturaren parte, horregatik bururatu zaigu piperrarekin lotura duen ibilbide bat osatzea herrian».

Piparraren Bideak 2,7 kilometro ditu eta ibilbide zirkular bat da, plazan hasi eta plazan bertan amaitzen dena. Bost panel jarri dituzte ibilbidean zehar, piperraren eta Ibarraren arteko lotura azaltzen dutenak. Zura komunikazio taldekoa den Julen Laruskain eta Josu Ozaita antropologoa aritu dira panel horiek osatzen, irudiz zein testuz. Testuak bi hizkuntzatan idatzi dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz. Lurrean ere bi piper berderen markatxoak egin dituzte ibilbide osoa seinaleei jarraituz egin ahal izateko, baina Zapirainek esan duenez, ez dira gehiegi ikusten; «kolore berdea izateak



Herri inguruan prestatu dute ibilbidea, eta bidean bost panel jarri dituzte azalpenak emateko. I.S.A.

ere ez dakit gehiegi laguntzen duen, beraz, beste zerbait pentsatuko dugu seinaleztatzeko».

Erreka ondotik abiatzen da ibilbidea, herriko baserri nagusienetako batzuetatik pasatzen da eta baratze garrantzitsu batzuk ere ikusi daitezke herrigunean zehar. Ondoren, Leaburura doan garai bateko herri bidetik aldapa igo behar da. «Aurreko legegaldian hasi ziren bide hori konpontzen, eta orain, borobil-



Ibilbide amaieran atsedenerako gune bat egokitu dute, parrila eta guzti. I.S.A.

du egin dugu», azaldu du. Bide horretatik jarraitu eta kaskora iristean, piperrak dauden baratzak ikusi daitezke, eta piper ekoizleen lantegietatik pasatzen da, besteak beste, Txumitxa eta Ibarlurretik. Handik, Ibarra herriaren sorlekua den Etxezarreta baserriaren bueltara inguratzen da bidea, eta bertatik, ikastola eremura jaisten da.

Ikastola ondoan, atsedenerako gune bat prestatu dute, material birziklatuz udal langileek egin dutena. Egurrezko sei mahai jarri dituzte bere eserlekuekin, gutxi gorabehera 40 pertsona inguru esertzeko. Parrila bat ere jarri dute, bi su dituen, eta garai bateko baserri batetik berreskuratutako harrizko arraska bat ere bai, iturri bezala. «Udalarena zen eremu bat egokitu dugu, sasiak hartuta zegoen, eta leundu egin dugu», gehitu du alkateak.

Ibilbide amaieran, atsedenerako iritsi zirenean, mokadutxo bat egiteko tartea hartu zuten; ordurako parrila piztuta zuten, eta ibilbidea osatu zuten guztiek elkarrekin egin zuten hamaiketakoa.

Aniztasun funtzionala dutenak ere mendira

Lizartzako ondare historikoa ezagutzeaz gain, aulki egokitu eta norabide barra bat probatzeko aukera izan zuten larunbatean

Eneritz Maiz Etxarri Lizartza

Lizartzako ondare historikoa ezagutzeko, egun osoko egitaraua antolatu zuten larunbaterako, eta goizean, Axurdariora igo ziren. Akerbeltz espeleologia eta kultur taldeak, Aranzadi zientzia elkarteak eta Otsabio kirol elkarteak antolatu zuten irteera. Axurdario ezagutu zuten bertako mito, geologia eta historia ezagutuz. Haitzuloak eta haitzu-

lo karstikoen lurpeko mundua, eta bertan dagoen trikuharria.

Baina, ondare historikoa ezagutzeaz gain, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako presatatutako aulki berezia eta ikusmen arazoak dituztenentzako norabide barra ekarri zituzten Lizartzara Gasteizko Montes Solidarios elkarteak. Azalpenak eman zizkieten bertaratuak eta probatzeko aukera ere izan zuten. Jon izeneko gazteak,

begiak estalita eta barrari helduta egin zuen Axurdariorainoko bidea. Aldiz, beheakoa, aulki berezia probatu ahal izan zuten, eta honela, dibertsitate funtzionala duen edozein pertsonak mendiaz eta naturaz gozatzeko eskubidea eta ahala duela erakutsi zuten.

Arratsaldean, historiaurrean sakontzeko tailerra eskaini zuen Aranzadiko arkeologoa den Jesus Tapiak, Lizartzako plazan.



Aulki egokitua eta norabide barra eraman zituzten Axurdariora. ATARIA

Zazpi ekintzailerentzat tokia dago Emari Coworking gunean

Lehen promozioako ekintzaileekin elkarlanean, Oriaburu eraikinean Emari Coworking gunea gizarteratu eta plazak betetzeko helburuz kanpaina abiatu du Tolosako Udalak

Jon Miranda Tolosa

Tolosako Oriaburu eraikinean kokatzen den Emari Coworking gunean zazpi leku daude libre ekintzaileentzat. Interesa dutenek izena eman dezakete *Emari.eus* webgunean, eta izena eman ondoren udaleko ardura-dun bat jarriko da beraiekin harremanetan. Olatz Peon alkatea azpimarratu duenez, Emari aukera bat da, proiektu berriei bidea emateko: «Coworking gune publikoa izanik eta proiektu berriak aztertzea eta sortzea bideratua dagoenez, espazio komun bat eskaintzen dugu, non pertsona guztiek beren artean jarduten duten, lankidetzan aritzen diren, gogoeta egiten duten eta esperientziak partekatzen dituzten».

2018an egokitu zen Oriaburu eraikineko bigarren solairua coworking gune bihurtzeko, Tolosako hiri ekonomia indartu, enplegu aukera berriak sortu eta herrian bertan ekintzaileen erreferentziazko berrikuntza eta sormen zentro bat izateko helburuarekin. Hastapen fasean dauden proiektuak garatzeko gune bat izatea da helburua eta bertan lan egiten duten proiektuen arteko sinergiak sustatzea. Kristina Larrañaga gunearen kudeaketaz arduratzen den teknikariak azaldu duenez Emari Coworking gunean ordutegia malgua da: «Ekintzaileek asteko zazpi egunetan, 24 orduz dute sarbidea Emarira. Kostu bakarria espazioa erabiltzeko hilean ordaindu beharreko 50 euroko kuota da eta gutxienez sei hilabetez eta gehienez hiru urtez egon daitezke bertan».

Coworking gunean errealitate erabat ezberdinak garatzen dira. Ekintzaile bakoitzak du norberaren erabilerarako eremu fisiko indibiduala eta bertatik garatzen dute euren enpresa jardura eta bezeroei ematen dieten arreta zuzena. Horrez gain, Emari internetara konexioa, funtzio anitzeko inprimagailua, bilera gela eta sukalde txokoa ditu. Bestalde, bertako ekintzaileek harreman zuzena dute gunea kudeatzen



Kristina Larrañaga teknikaria eta Olatz Peon alkatea ekintzaileekin. J.M.

duen teknikariarekin eta formakuntza eta aholkularitza jasotzen dute.

FORMAKUNTZA SAIOAK

Udazkenean ekintzaileei zuzendutako ikastaroak eskainiko ditu Tolosako Udalak Emari Coworking gunean bertan. Iaz, ekintzaileen lehiakortasuna hobetzeko marketin aurreratuari buruzko lau hilabetezko formazio saioa eskaini zuen Mondragon Unibertsitateak. Peonek aurreratu duenez, aurtengo kolektibori zuzendutako beste bi saio eskainiko dituzte: «Uztailaren 7an eta irailaren 8an, zibersegurtasunaren inguruko jardunaldi ezberdinak antolatu dira Ziur fundazioaren eskutik. Enpresa txiki eta ertainentzat eta ekintzaileentzat ere izango da formazio saioa. Alkatea nabarmendu du lehen al-

dia dela enpresei zuzendutako horrelako jardunaldi bat antolatzen dela Tolosan.

Emari Coworking gunean 10 ekintzailerentzako tokia dago, eta gaur egun, hiru baino ez dira ari lanean. Lehen promozioako ekintzaileek euren tokia utziko dutenez, zazpi ekintzaile berri erakartzeko kanpaina jarri zuen martxan udalak maiatza amaieran. «Duela hiru urte zabaldu zituen ateak Emari, eta espazioa indarberritzen, ezagutzera ematen, ekintzaile berriak erakartzen eta ekintzaileei aukera berriak eskaintzen jarraitu nahi dugu. Helburu horrekin abiatu dugu informazio kanpaina berria, ekintzaileen parte hartzearekin garatu duguna, herritarrei beren esperientzien berri eman eta espazioa ezagutzera eman dezaten», azaldu du alkatea.

INKESTA ZERGATIK EMAN IZENA COWORKING GUNEAN?




«Lan egiteko askatasun espazio bat da hau, baldintza ezin hobeekin»

SILVIA SERNA POSTIGO EKINTZAILEA

Enpresa mundutik zetorren Silvia Serna Postigo eta negozio ideia berri bat garatu ahal izateko iritsi zen Emari Coworking gunera. «Paradigma berri baten bila nenbilen eta erakundeak nola humanizatu dago nik proposatutako negozio ideiarekin oinarrian. Iruditzen zaigu pertsonek dutela aldaketarako giltza eta horretarako sareak eta lankidetzak garrantzitsuak direla».

Sinergia ideia horiei helduz, beraz, coworking espazio batean lekuetzeko ideia erabili zuen buruan Sernak: «Lehenik Tolosako Udalarekin harremanetan jarri eta ondoren Tolosaldea Garatzenen negozio plana lantzeko aukera izan nuen. Baldintzak bete eta tokia egin zidaten hemen Emari. Prozesu guztian lagunduta sentitu nintzen».

Ekintzaile berriak pausoa ematera animatu nahi ditu Sernak. «Lan egiteko askatasun espazio bat da hau, baldintza ezin hobeekin. Kanpotik jendea hona etorri eta nola funtzionatzen duen ikustekoan harrituta geratzen da». Gainerako ekintzaileekin duen zuzeneko hartu-emanak proiektu partekatu batzuk garatzeko aukera eman diela nabarmendu du Sernak. «Sareak eta lankidetzak berez bultzatzen dira hemen».



«Espero ez nuena da hainbeste sinergia lortzea, beti sortzen dira kontaktuak»

ILAZKI ZALAKAIN ERBITI EKINTZAILEA

Eskertuta agertu da Ilazki Zalakain Erbiti Tolosako Udalarekin Emari Coworking espazioa erabiltzeko aukera eskaini izanagatik. Hiru urte dira bertan lanean hasi zela: «Ideia berritzaile bat izan nuen eta aldundiaren laguntza izan nuen hori garatzeko. Iaz sortu nuen Benio izeneko enpresa eta izen bereko aplikazioa».

Oriaburu eraikinean dagoen espazioa «zoragarria» dela esan du Zalakainek. «Bilera gelak, sukaldeak, komuna... diseinatzaile eta garatzaileekin bilera asko egin behar izan ditut eta horretarako espazio egokiak topatu ditut hemen». Gunea erabiltzeko ordaindu beharrekoa «merkea» dela esan du ekintzaileak.

«Espero ez nuena da hainbeste sinergia lortzea. Ekintzaileena oso kolektibo arraroa da eta oso ondo dago zu bezalakoekin harremanetan egotea. Beti sortzen dira kontaktuak, lan osagarriak, informazioa... Elkarri babesa emateko aukera izatea ere eskertzekoa da».

Emari ideia bat daukan ekintzailearentzat toki aproposa dela uste du Zalakainek: «Jende zoragarria topatuko dute elkarbanatzeko gogo dagoena. Gauza onak baino ezin ditut esan Emari guneaz».

Izetatarrek jantzi dute txapela pentatloian

Iñaki Errazkin eta Aratz Mugertza laugarren geratu dira; Lucia Orbe eta Garazi Arrutik irabazi dute emakumezkoetan

Erredakzioa

II. Mahala Binakako Euskal Pentatloiko finala jokatu zen larunbatean Tolosako zezen plazan. Sei bikote aritu ziren nor baino nor txapelaren lehian, eta lanak azkarren egin zituen Jexux Mari Iruretagoiena eta Andoni Iruretagoiena osaba-iloba zarrautzarrek osatutakoa izan zen. 40 minutu eta 24 segundo behar izan zituzten lanak amaitzeko.

Bigarren, Ioritz Gisasola *Zelai IV.a* eta Jon Gisasola *Zelai V.a* mallabitarrak izan ziren 43 minutu eta 5 segundoko denborarekin. Podiuma Jon Unanue azkoitiarrak eta Mikel Larrañaga azpeitiarrak osatu zuten, 44 minutu eta 4 segundorekin.

Laugarren postuan geratu zen Iñaki Errazkin tolosarrak eta Aratz Mugertza mutrikuarrak osatutako bikotea, 44 minutu eta 56 segundo behar izan zituztelarik lanak amaitzeko. Bosgarren postuan, Luis Txapartegi eta Jagoba Otaegiren ordeztu ziren Ugaoko Aritz Irazabalek eta Getxoko Benat Amadek amaitu zuten, 45 minutu eta 31 segundoko denborarekin. Azken postua, Kepa Peñagarikano azpeitiarrarentzat eta Gorka Etxeberria oriotarrarentzat izan zen, eta hauek 49 minutu eta 32 segundo behar izan zituzten lanak amaitzeko.

Sei bikoteek egin behar izan zituzten lanak ondorengoak izan ziren: harri-jasotzen 40 jasoaldi



Binakako Euskal Pentatloiko irabazleak larunbatean Tolosako zezen plazan. I.T.

eman, giza proban lau plaza egin, aizkoran lau kana-erdiko ebaki, txingekin zortzi plaza egin, eta amaitzeko, lau kilometro korri egin zezen plazari biraka.

ORBE ETA ARRUTI GARAILE

Emakumezkoen Pentatloiko Laboral Kutxa Saria jokatu zen, baita ere, larunbat arratsaldean Tolosako zezen plazan. Azken honetan hiru bikotek aritu behar bazuten ere, aizkorarekin ari zela Claudia Muñoz lesionatu egin zen. Julia Martinezekin osatzen zuen bikotea, baina lehiatzeko moduan ez zegoenez, azkenean, bi bikoteren artekoa izan zen lehia. Alde batetik, Karmele Gisasola *Zelai III.a* eta Uxue Ansoregi bikotea, eta bestetik, Lucia Orbe eta Garazi Arruti.

Orbek eta Arrutik osatutako bikoteak egin zituen lanak azkarrago, eta saria eurentzat izan zen. 29 minutu eta 45 segundo behar izan zituzten lanak amaitzeko. Aurkariak bi minutu gehiago behar izan zituzten, 31 minutu eta 27 segundo, hain zuzen.

Bikote bakoitzak harriari horgei jasoaldi eman behar izan zituzten, ondoren, giza proba pasatu zuten eta bi plaza egin zituzten, bakoitzak bana. Gero, aizkorarekin, 45 ontzako bi enbor ebaki zituzten, txingak hartuta sei plaza egin zituzten ondoren, eta azkenik, korrika bi kilometro osatu zituzten zezen plazari biraka.

Lehen aldiz jokatu da aurtur emakumeen pentatloia, eta irabazleek Laboral Kutxak emandako saria jaso zuten Tolosako udal ordezkarien eskutik.



Santiago Mesa, Charles Etienne Chretien eta Asier Etxeberria podiumean. E.M.

Helmugan lehena Chretien kanadarra izan da

XLIII. Jose Mari Anzaren Oroimenezko txirrindulari proba irabazi du Laboral Kutxako txirrindulariak

Erredakzioa

XLIII. Jose Maria Anzaren Oroimenezko txirrindularitza proba jokatu zen larunbatean Tolosan, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, eta Charles Etienne Chretien kanadarra izan zen azkarrarena. Quebecoko txirrindulariak hiru ordu, hiru minutu eta zazpi segundo behar izan zituzten 128 kilometroak egiteko. Atzetik, bere taldekide den Laboral Kutxako Asier Etxeberria sailkatu zen minutu eta sei segundora helmugaratuz. Hirugarren postua, berriz, Grupo Eulen taldeko Santiago Mesarentzat izan zen, eta hau lehenarengandik minutu eta hamazazpi segundora iritsi zen.

Hirugarrenak baino segundo bat gehiago behar izan zuen laugarren sailkatua izan zen Iñaki Guarestik. Ostean, minutu bat eta 22 segundoko denborarekin bost txirrindulari helmugaratu ziren: Iñigo Eizagirre, Jon Polledo, Asier Urionabarrenetxea, Ander Amonarriz eta Gaizka Gurrutxaga. Hamargarren postua John Jairo Alonsorentzat izan zen, eta bi minutu eta 21 segundo behar izan zituzten lasterketa amaitzeko.

Tropela erabat sakabanatuta iritsi zen Tolosako helmugara. Tolosatik atera, eta Larraitzetik hiru itzuli egin behar izan zituzten, eta azken itzulian Altzo igo behar izan zuten Tolosan helmugaratzeko.

Taldeakako saria Laboral Kutxa taldeak eskuratu zuen eta mendiko saria John Jairo Alonso Caja Rural taldeko txirrindulariarentzat izan zen. Aldiz, Abiatzen Elite saria hirugarren postuan sailkatu zen Grupo Eulen taldeko Santiago Mesarentzat izan zen.

Hilberriak eta urteurrenak



Maria Rosario Aguirre Zabala

(Miguel Lasaren alarguna)
Ekainaren 21ean hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Seme-alabak: Jose Mari eta Rosa Arratibel, Nekane eta Jose Angel Olariaga; bilobak: Unai, Amaia, Nerea; anai-arrebak: Katalin (†), Joxe (†), Inaxi eta Marcial Caminos (†), Jose Miguel (†), Miguel eta Inaxi Zuriarrain, Joakin (†) eta Lurdes Lasa (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte, GAUR ASTEARTEA arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SAN FRANTZISKO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN, 2021eko ekainaren 22an

OHARRA: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da, GAUR ASTEARTEA arratsaldeko 18:00ak arte.



- I. URTEURRENA - Karmen Etxaniz Larrea

2020ko ekainaren 21ean hil zen.

Urtebete pasa da tarteka buruan orain izango dezu ahizpare onduan musika ta kantuz gozatu zeruan beti izango zera gure bihotzean (bis)
Etxekoek matte-matte.

Elizkizuna IGANDEAN, ekainaren 27an, izango da, AZKOITIKO PARROKIAN, 11:00etan.

AZKOITIAN, 2021eko ekainaren 22a

ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Asteleheneetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte
hartzen ditugu

«Orain hobeto sentitzen naiz, konfiantza handiagoa baitut nigan»

JOKIN ALTUNA BURUZ BURUKO TXAPELDUNA

Orain gutxi zendu den aitona izan du gogoan txapela eskaintzerakoan; 25 urterekin final gehien jokatu dituen pilotaria da, ondo ari dela uste du eta bide beretik jarraituz gero, txapel gehiago irabazteko lehian izatea espero du.

I. Terradillos/I. Garcia Landa
Amezketak

Garaipen handiaren biharamunean pozik azaldu da Jokin Altuna (Amezketak, 1996). Bigarren txapela jantzi du buruz burukoan pilotari amezketarrak.

Nola jaso zenuen Amezketak prestatu zizun ongi etorria?

Ederra izan zen. Ez nuen horrelakorik espero. Udaletxera igo ninduten, bertso batzuk kantatu, dantza egin... Hitz batzukegiteko aukera ere izan nuen. Oso egun polita izan zen. Etxekoekin ere afaldu nuen, eta lagun askorekin egon nintzen. Oso eskertuta nago amezketar guztiei.

Zer egin zenuen bereziki ondo finalean?

Gauza asko egin nituela ondo esango nuke. Sakean eta erretoan ondo aritu nintzen, baina, garrantzitsuena izan zen ez niola uzten Rezustari agintzen.

Zertan izan da desberdina buruz buruko hau?

Jokoari dagokionean, agian buruz buruko agresiboena izan da. Beti da gogorra eta zaila, baina, azken honetan partidak era gogorragoan hasi ditut eta horrek irabazten hasteko balio izan dit. Nire ustez, esperientzietatik ikasi behar da, eta hobetuz joan. Fisikoki ere, hobeto ikusten dut nire burua urteak aurrera doazen heinean.

Bilakaera nabari duzu, beraz. Esperientzia irabaziz zoazen

heinean, hobetuz zoaz. Orain hobeto sentitzen naiz, konfiantza handiagoa baitut nigan. Agresiboago jolasten ari naiz, eta horretarako zure burua ondo ikusi behar duzu.

Jokin Altuna lasai bat ikusi ahal izan zen finalean.

Lehen huts egiten nuenean beste era batera hartzen nuen, eta garrasika-eta hasten nintzen. Orain zentratuago ikusten dut neure burua, lasaiago. Horregatik diot esperientzia garrantzitsua dela.

Txapela nori eskaintzen diozu?

Pertsona asko etortzen zaizkit burura. Aitonari eskaini nahiko nioke, ezin izan duelako ikusi, eta horrek pena handia eman zidan. Bestetik, Jokin Etxanizi eta David Dominguezi ere eskaini nahiko nioke, beraiekin lanean oso gustura nagoelako.

Nekane arrebarengana joan zinen eskuak altxatu ondoren txapela ospatzera.

Partida guztietan lagundu dit, eta une guztiak bizitzea egokitu zaio, onak eta ez hain onak. Azken tantoa eta gero horrela atera zitzaidan, eta berarengana joan nintzen ospatzera lehendabizi.

Gorka Altuna lehengusua zer moduz aritu da botilero?

Oso ondo. Gorkak lasaitasun handia eman dit. Bere adinerako pertsona oso heldua da. Konfiantza handia eman dit, eta oso pozik nago berarekin.



I.G.L.

Zein izan da partidarik lehiatuena txapelketan?

Ezkurdiaren aurkakoa. Josebaren aurkakoak beti izaten dira gogorrak, eta berari irabazteak konfiantza gehiago ematen dizu.

Sei hilabete ere ez dira pasa Lau eta Erdiko txapeletik.

Bai, eta poza ematen dit. Emaizak eguneroko lanean jarraitzeko motibazioa dira. Ilusioa egi-

ten dizu eta oso polita da. Hori bai, txapela lortzeko txapelketan gauza asko egin behar dituzu ondo. Ondo ari naizela uste dut, eta horrela jarraituta ziur naiz partida garrantzitsu gehiago etorriko direla.

25 urterekin final gehien jolastu duen pilotaria zara.

Garrantzitsua da, baina ez diot pisu gehiegirik ematen. Irabaz-

teko goseak motibazioa ematen dizu, baina, horrek egunerokoa izan behar du. Entrenatzeko eta hobetzen joateko gogoia izan behar duzu. Errazagoa da gogoz eta zure buruarekin gustura bazau- de aurrera egitea. Hori bai, ez nuen pentsatzen honaino iristea lortuko nuenik. Orain badut gogoia udari begira tentsio gutxia- goko partidak jokatzeko.



TXAPELA ETXEAN

Dantza, bertsoak, suziriak eta herritarren berotasuna jaso zuen igande gauean Jokin Altunak, finala irabazi eta Amezketara heldu zenean. Plaza jendez bete zen pilotariari ongi etorria egiteko, eta Altunak hunkituta jaso zuen herrikideen berotasuna. LEYRE CARRASCO



ASTEARTEA, 2021EKO EKAINAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarra: 687 410 118. ibarra@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goizatz, Etxebarri, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BORROKAN JARRAITUKO DUTE

Tolosaldeko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, ikasturteko azken elkarretaratzea egin zuten atzo, Tolosako Plaza Zaharrean. «2023a baino lehen Gizarte Segurantzaren finantza-defizitarekin amaitzea eta Estatuak Pentsioen Sistema Publikoarekin duen zor historikoa zehaztea eskatzen dugu», adierazi dute, eta «ezberdintasunari eta bidegabekeriari buelta eman arte» kalean eta borrokan jarraituko dutela adierazi dute. JOSU ARTUTXA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberrak...

www.ataria.eus • 107.6 fm •

AGENDA

Deialdiak

Amezketza. Amaia Telleriaren *Hai-ze-lekuak* liburua aztertuko dute, kultur etxean, 19:00etan.

Anoeta. *Transbizipenak: gai per-sonala edo soziala?* hitzaldia, gaztetxean, 19:00etan.

Berrobi. *Exodo.* Hondakinak aterpe Siriako kurduei buruzko dokumentala, pleno aretoan, 19:00etan, etalburutegian erakusketa.

Ibarra. Kultur lantegietako artelaren erakusketa, kultur etxean.

Ikaztegieta. *Suak harrotuzibillide* antzeztua, 18:00etan.

Irura. GI-3650 errepideko trafikoa iruz hitz egiteko herri batzarra, herri eskolan, 18:00etan.

Tolosa. Solstizio kontzertua, Urki-zun, 19:00etan.

Tolosa. *Blokeorik ez!* Kubarekin elkartasuna lelopean elkarretaratzea, Trianguloa plazan, 19:00etan.

Tolosa. *Balearen begia* dokumentala, Leidorren, 19:00etan.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!; **11:30.** Gaurkoan Tolosalde; **15:00.** Elkarriketap: Sagrario Aleman; **13:30.** Gaurkoan Tolosalde; **21:30.** Gaurkoan Tolosalde; **22:00.** Alurr dantz taldearen emanaldiak.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Amalurra. Ingurumena.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratien artean eginiko magazina.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Iarrea-ga Aramburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro kaxkar xamarra izango dugu. Egun osoan hodeiak izango dira nagusi eta hodei hauek euria ere utziko digute. Euri zaparradak egun osoz emango dira, baina ugariago egingo du egunaren lehen zatian eta ondoren arratsalde erditik aurrera, ekaitzak jotzea baztertu gabe. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea zarak ibiliko da eta tenperatura ez da 18-19 gradutik pasako.

Bihar. Giro kaxkarrarekin jarraituko dugu. Egun osoan hodeiak nagusi izango dira eta euri zaparrada batzuk izango dira. Euri gehiena goizean egingo du eta arratsalde erditik aurrera pixkana atertzeko joera hartuko du. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizeak orokorrean ahul joko du eta tenperatura antzeko mantenduko da, 18-19 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera



mendexpark.com
688 85 62 83
MENDEXA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera



Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
birdcenter.org
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.